

Prensa oharra

2021/05/25

Kutxabankek beka berri bat emango du EHU-ko Blockchain eta Kriptoekonomiako berezko masterrera

Graduondokoaren bigarren edizioa urrian hasiko da, Matematikan, Fisikan, Ingeniaritzan, Ekonomian eta antzeko espezialitateetan titulua dutenei zuzendua

Kutxabankek EHU-ko Blockchain Teknologia eta Kriptoekonomiako berezko masterra babesten jarraituko du, eta beka berri bat emango du ikasturte berrian izena ematen duen lagun baten matrikula-gastuak ordaintzeko. Masterraren bigarren edizioa urrian hasiko da.

Urtebeteko iraupena izango du eta 60 ECTS kreditu emango ditu. Matematikan, Fisikan, ingeniaritzan, Ekonomian eta antzeko espezialitateetan prestaketa sendoa duten lagunei zuzendua izango da. Aurrez-aurreko ikasketak Zientzia eta Teknologiako Fakultatean (Leioa-Erandion) ematen dira, astelehenetik ostiralera, 15:00etatik 19:00etara.

2020/2021 ikasturtean berezko master honen lehen edizioa egin da, 'blockchain' teknologiaren oinarriak zabaltzeko eta espezialitate honek gizartean eta industrian dituen erabilerak sakontzeko helburuekin.

Graduondoko honetan parte-hartu dutenek enpresetan praktikak egin ahal izan dituzte, eta hauetan beren master amaierako lanak ere burutu ahal izango dituzte.

'Blockchain' disziplina eta ezagutza-esparru ugari batzen dituen teknologia da, kriptografia, sistema distributiboak, jokoaren teoria, moneta-ekonomia, informatika hizkuntzak edo sistemak, eta segurtasun informatikoa, besteak beste. Horregatik, masterraren helburu nagusia metodologia ugari ikuspegia duen egitaraua prestatzea izan da.

Horretarako, EHU bertako irakasleek eta ikertzaileek parte hartu dute, kualifikazio handia duten kanpoko profesional espezialisten laguntzarekin. Hain zuzen ere, masterreko irakasleen erdia baino gehiago Unibertsitatetik kanpokoak dira, tartean Kutxabankeko adituak.

Mugikortasunarekin, analitika aurreratuarekin, biometriarekin, inteligentzia artifizialarekin eta 'blockchain'ekin duten esperientzia aintzat izanik, datorren ikasturtean beren ezagutza azaltzen jarraituko dute Kutxabankeko profesionalek, geroz eta teknologo gehiago erabiltzen ari den negozio-esparrua baita banka.

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea



Gainera, eta bertako talentua atxikitzeko abian jarri duen apustuarekin bat eginez, bankuko profesional hauek beren hitzaldietan sortutako baliabide ekonomikoak Kutxabankekin emango duen beka hornitzeko erabiliko dira.